ZIBERSTEILAS
EAEko IRAKASLEAK
10
STEILASen informazio elektronikoa • Data 2026/02/05

ZERBITZU-EGINKIZUNAK: OSASUN-ARRAZOIAK

Otsailaren 5tik 18ra osasun-arrazoiengatik zerbitzu-eginkizunak eskatzeko epea irekita egongo da. Eskaerak Hezigunearen bitartez izapidetu beharko dira. Ebazpena eta eskaerak aurkezteko gida ondorengo estekan ikusgai.

ADINAGATIKO IRAKASTORDUAK MURRIZTEA: MODALITATE METATUA

Gogorarazi nahi dizugu 60 urte betetzen diren egunean edo 10 egun natural lehenago eska dezakezula metaketa. Eskaera Hezigunearen bitartez.

LEKUALDATZE-LEHIAKETA: LANPOSTU HUTSAK

Ondorengo dokumentuetan ikusi ahalko duzu 2025-2026 ikasturteko lekualdatze-lehiaketan atera diren lanpostu hutsen proposamena.
Irakaskuntza ertainak ; Maisu-maistrak.

MATRIKULAZIOA

Otsailaren 2tik 13ra irekita dago 2026-2027 ikasturterako Euskal Eskola Publikoko aurrematrikulazio-kanpaina. Matrikula itzazu zure seme-alabak eskola publikoan! Informazioa ondorengo estekan ikusgai.

HEZI+, HORRELA EZ!